

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio-eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile- eta bazkide-sarea da.

Gure negozio-ereduarekin aurrera egiteko funtsezko elkarteak bazkide- eta hornitzaile-sareak izango dira.

Alde batetik, bazkide-sarean gure produktuan interesatuta dauden pertsonak sartzen dira, hauek gure produktua babestuko (bermea emanez) eta gure taldea motibatuko dutelako. Azken hau oso garrantzitsua da; izan ere, honek emango dizkigu aurrera egiteko indarrak. Gainera, bazkide-sareko kideen betebeharra izango da negozioan dirua inbertitzea. Horrela, gure enpresaren hazkundera bermatuko da. Ezpeleta enpresarekin egingo dugu aliantza.

Beste alde batetik, hornitzaileei dagokionez, hauek enpresatik kanpo daude, eta beraien helburua izango da enpresari gauza ezberdinak ematea. Adibidez, ondasun-hornitzaile batek egingo duena da gure enpresari materiala eman produktua ekoiztu ahal izateko; kortxoak emango liguke. Gainera, gure enpresak zerbitzu-hornitzaileen beharra ere izango luke. Talde honetan telefono, ur eta argi konpainiak sartzen dira. Horietaz gain, baliabideen hornitzaileen funtzioa izango da enpresaren eskakizunak betetzea. Esate baterako, bankuek eta kreditu- eta finantza-erakundeek baliabide ekonomikoak finantzatzen lagunduko lukete. Enpresak hornitzaileak izatearen onuretako bat izango da guk eskainitako produktua azkarrago aterako litzatekeela merkatura.

Aurreko bi taldeak oso garrantzitsuak izango dira guretzat, gure proiektua aurrera eramatea errazagoa izango da atzean geroz eta jende gehiago badago, eta bakoitzak bere zeregina ondo eta egoki betetzen duen bitartean, orduan eta azkarrago haziko da gure enpresa, eta horrekin batera, gure motibazioa. Hala eta guztiz ere, guk, enpresaren sortzaile bezala, kontuan hartu behar dugu aurreko bi taldeek ez dutela aurreikuspenak betetzen, eta gure enpresaren arrakasta ez da bakarrik beraien menpe egongo. Azkenik, ez badago atzetik lan gogorrik eta interesik beraien aldetik, litekeena da ekintzailetzaren garapenak porrot egitea.